


berandu iritsi ote euskal herria?

TXILLARDEGI



Alferrik litzateke ukatzea. Inor

ukatzen saiatuko ote den ere, ez da somatzen. Ryan-en heriotzaren ondoko manifestazioek hetsi duten astea, aste "historiko" horietakoa izan da. Mami-tzen ari zen krisia, agerira azaldu da brauki. Eta Donostian atzo gertatu ziren zaurituak eta borroka hitsak, horren froga garbia dira. Zerbait hausi bide da; eta "uso zurien" manifestazioan baino sakonkiago oraingoan. Zer, ordea?

Atzoko leherketa aspaldi danik mami-tzen hasia bazen ere, bi gertakarik girtu bide dute bereziki: Gernika-ko bilera, eta Ryan-en heriotzak.

Gernikan ikusi zenak, sekula ezagutu ez genuen polizi pilaketa aparte utzita, izugarri mindu zuen ezker abertzalea. Brouard, Gorostidi, Amuriza, Antton Iburguren, Jose Ramon Etxebarria, Idigoras, eta gainerako abertzale gogorak, ostikopeturik eta arrastaka Juntetxetik ateraiak ikustea, ez da, nolahi ere, erraz ulertzen. Nekez soma bide daiteke Arana-Goiri barru hartan txaloka. Eta nekez ere Marx edo Lenin, Franco-ren ondokoaren alde jokatzeko, eta Berrozi-koei zorionak ematen. Baina Arana-Goiri eta Lenin ofizialki segitzen dituztenek, "Eusko Gudariak" kantatzen zuten "anti-reglamentario" horien kanporaketa ontzat ematen ikusi zuten; eta ezker abertzaleak ez du ezer ulertu.

Ryan-en heriotzak, berriz, handitu egin du ezker abertzalearen aztoraketa. Zeren Ryan-ek hiltzea merezi ez bazuen, Caracas-ko eibartarrek ez baitzuten areago merezi; eta Hendaia-ko "Hendayais" tabarnan hildakoek ere ez. Badirudi lau hauek, gutxienez, Ryan-ek baino erru txikiagoarekin hil zituztela; eta hala ere ez ziren atera kalera atzoko jende-oste gaitzak. "Bi neurri" desberdin horiek horren nabarmen geldituta, ezker abertzaleak ez du ulertu.

Baina ezker abertzaleak, su-

mindurik, ezindurik, beste hau somatu du: berriro ere, "hypothese dechirante" famatu hori eginez gero, dena ulergarri bihurtzen dela. Eta hipotesia hau da: PNV-ari sigla kendu behar zaiola, eta UCD-ren delegaziotzat ikusi. Arana-Goirik orain dela ehun urte euskal karlismoa biluztu zuen bezala. PNV karlismo berria da, errege-ta-guzti. Oso pozik dago "pacto con la corona" artxi-eskuindar horrekin, eta kito. "Pertinax"ek lehengoan "Eusko Gudariak" delakoaren "lapurreta" salatzen zuen. Baina sigla horren atzean dagoena ez da

PNV, ez da alderdi abertzale bat; UCD-koen delegazio fidela baizik. Hauxe da gure herriak poliki-poliki ikasi behar duena. PNV-ri ez zaio ezer "lapurtu" behar, dena saldu baitu.

PSOE-koen eta PC-ren jokabideaz ezer gutxi esan behar da. Bertago dago Mugica-Herzog inperialista urdinengandik, (eta egunero gogorazten digu deklarazio nabarmenetan), inolako euskaldunengandik baino; eta PSOE-k nolako politika iraultzaile eta anti-kapitalista egin dezakeen argitu beharrik ez dago. Denek dakite. PC-a, berriz, sozial-demokraziaren zikloa egiten hasia, nekez izan daiteke harrigarri haren jokabidea. Anti-abertzale amorratua, ez da aldatu; eta hemendik aurrera ez da aldatuko. Bi indar hauetan, beraz, aldakuntza gutxi. Múgica-Herzog ez da prieto baino gutarragoa.

Talde bat urruntzen ari da gugandik, gero eta nabarmenkiago. Eta barruan dauden militante abertzaleekiko errespetuaz gaur arte ezer salatu ez badugu ere, hemendik aurrera isiltzea ezinezkoa izango da. Zeren "Euskadiko Ezkerra" k, jatorriz ETA-tik sortua, eta garai batean ezker abertzalearen parte, argi-eta-garbi erabaki baitu, egun hauetan ikusi dugunez, PC-aren morrontzan sartzea. Asmo zaharra, jakina, E.E.-ko batzuren; baina asmo zinezkoa eta deliberatua, ikusten dugunez. Inork ez dio ukatzen E.E.-ari hemengo PSUC edo PC bihurtzeko eskubidea. Baina bide hori hautatu badu, ondorio guztiak hartuko ditu bere gain. Tristuraz bada ere, beraz, hauxe da ezker abertzaleak galdu duen atala, Galdu, bai.

Gainerakoa galduta zegoen. PNV-a ere galduta baitzegoen aspaldidanik, Monzon-ek eta bestek 1953-az geroztik argiro ulertu zuten bezala.

Ezker abertzalea, horretara, "bakarrik" dago. Hauxe da atzo, botila batez zauriturik, gazte batek esaten zidana: "Nos hemos quedado solos". Baina hori ez da egia: "estábamos solos y estamos solos". E.E.-ak utzi gaitu, hori bai, PC-koen dilista-plateraren truke. Beste guztiak ez gaituzte utzi; ez baitira behin ere gurekin egon. Momenturik larrietan ere, taktika gisa ere, ez baitute inoiz gurekin ezertan elkaturik joan nahi izan. Ez dezagun historia nahas: besteak ez dira Sekula egon gurekin, eta orain ere ez.

Beste puntu garrantzitsu bat: gaurko sailketa ez da eskuindarrak/ezkertarrak. Ezta burguesia/ langileria ere. Zorionez edo zoritxarrez, eskema horiek ez digute balio.

Zatiketa hau da gaur: iraultzaileak/erreformistak. Alde batean, instituzioen barruan eta bidetik aldakuntzak egin nahi dituztenak daude; eskuindarrak eta ezkertarrak horretan batera. Eta bestean, berriz, dituzten helburuak (helburu ezkertarrak, Bandres-en baimenarekin, eta "Ukabil" taldekoek besterik erakutsi arte) abertzale eta sozialista izanik, instituzioen bideetan eta "erreformismoan" sinesten ez dutenak. Ezker abertzalea, hitz batez.

Hots, eta honetaraz gero, galdera bakarra hau da: POSIBLE ahal da Euskal Herriak bide iraultzailetik bere buruaz nagusitzea? Hauxe da, ene ustez, ezker abertzaleak erantzun behar duen GALDERA BAKARRA.

Ezezkoan, hau esan behar gerraz: "askatasunera iristeko txanda eta momentua pasa da; gure herria BERANDU etorri da". Hauxe da, funtsean, jokabide iraultzaileen kontra erabil daitekeen argumentu nagusia. Alegia: "berandu da". "Sistema indartsuegia da, eta jai dugu. Salba dezagun salba daitekeena erreformismoaren bidez, eta utz ditzagun ametsak".

Instituzioen egoera, ordea, hau da:

– Iparraldea galduta, eta bihotzetan ere gero eta ahantziagoa.

– Nafarroa berezita (edo gu Nafarroagandik berezita, berdín da); eta gure herria, beraz, txikia izanaz gain, hiru partetan zatitua.

– Euskara zapaldua, baztertua, telebistatik aihenatua, irratian bertan ukatua, edozein lekutan isilarazia eta diglosikoa; eta hiltzeaz.

– Indar ekonomikoak, UCD zahar eta berriaren eskuetan, kapitalismoaren zerbitzutan; eta errejionalismo eskuindarrean.

– Administrazioa, Euskal Herriko hiru parteetan, ia osoki, abertzale ez diren funtzionarioen eskuetan (frankistenetan ez gutxitan).

Panorama hori da.

Erreformismoaren bidez, tamaña horretako problemak ez dira inon konpondu, eta ez inoiz. Argi-eta-garbi esan behar da egia. Hau gutxienez.

Hautaketa, beraz, hau da: edo "perstianak jetxi", esan ohi den bezala; edo, juxtu gure herriaren txanda etorri deanean atea hetsi dela sinetsi ez, eta ezker abertzale independentistak aurrera jo. Hautaketa hau da; eta ez besterik.

Zer hautatu behar den, eta nola mamituko, ez da artikulua honen gaia.

Hautaketa hori dela, berriz, eta ez besterik, bai.